## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 4620

EBAZPENA, 2005eko abuztuaren 12koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Honen bidez agindua ematen da EHUko Gobernu Kontseiluaren 2005eko uztailaren 21eko Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko. Aipatutako Erabakiaren bidez Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea sortzen da.

Euskal Herriko Unibertsitateko artxibatze sistema 1996-1997 ikasturtean jarri zen abian, esparru horretako enpresa espezializatu batek egindako azterketari esker. Ondorioz, lau mailatan antolatutako artxibatze sistema ezarri zen, artxibatzeko prozedurei buruzko eskuliburua idatzi zen, Unibertsitateko zerbitzu zentraletan sortutako dokumentuak sailkatzeko taula eta haiek kontserbatzeko egutegia osatu ziren eta gaur egun erabil ezin daitekeen aplikazio informatikoa instalatu zen.

Artxibategi Nagusiak ordutik egunera arte egindako lanaren muina Unibertsitateko zerbitzu zentraletako artxibategietako dokumentu erdiaktiboak eta pasiboak Errektoretzako eraikineko Artxibategi Zentralean hartzea izan da, eta dokumentu horiek sortu dituzten unitateei mailegatzea, kontsulta egin dezaten.

2004ko maiatzean artxibatze sistema osoa berrantolatzeko prozesua jarri zen abian, EHU osatzen duten ikastegietan, sailetan eta institutuetan sortutako dokumentuak sartzearren bertan.

Lehenik eta behin, artxibategiko funtzionamendu araudia osatu beharra planteatu zen, baita dokumentuak sailkatzeko taula eta haiek kontserbatzeko egutegia eguneratu beharra ere. Horretarako, Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea sortu behar da aurretik, joan den ekainean Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko unibertsitateko artxibategiei buruzko jardunaldietan ondorioztatu zutenez.

Bestalde, berezko artxibatze batzorderik ez dagoenez gero, Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak egin beharko luke nahitaezko aurretiko txostena, EHUn bertan sortutako dokumentuak sailkatzearen eta haiek kontserbatzeko egutegiaren inguruko EHUren erabakiei buruzkoa; Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordea azaroaren 21eko 232/2000 Errege Dekretuak arautzen du, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituenak. Horixe xedatzen du 14. artikuluak. Harekin bat:

«2.– Artxibo sistema bakoitzak dokumentuak balioesteko eta aukeratzeko duen kide anitzeko organoak

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 4620

RESOLUCIÓN de 12 de agosto de 2005, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del acuerdo del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, de 21 de julio de 2005, por el que se crea la Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la Universidad del País Vasco / Eukal Herriko Unibertsitatea.

El sistema de Archivo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea inició su andadura en el curso 1996-1997 con un estudio realizado por una empresa especializada del sector. Resultado de este estudio fue la implantación de un Sistema de Archivo organizado en cuatro niveles, la redacción de un Manual de Procedimiento de Archivo, la elaboración de un Cuadro de Clasificación y Calendario de Conservación de la documentación generada en los Servicios Centrales de la Universidad y la instalación de una aplicación informática, hoy inutilizable.

Desde entonces hasta la fecha la labor desempeñada por el Archivo General se ha centrado en la recepción de la transferencia de documentación semiactiva y pasiva desde los archivos de oficina de Servicios Centrales de la Universidad al depósito del Archivo Central ubicado en el edificio del Rectorado, y en el préstamo de esa documentación para su consulta a las Unidades productoras de la misma.

Con fecha de mayo de 2004 se ha iniciado un proceso de reorganización de todo el Sistema de Archivo con el objetivo de poder incorporar al mismo la documentación generada en los diferentes Centros, Departamentos Docentes e Institutos que integran la UPV/EHU.

Como primer paso se plantea la necesidad de redactar una normativa de funcionamiento del archivo, así como actualizar el Cuadro de Clasificación y Calendario de Conservación de la Documentación. Para ello, y con carácter previo, es necesario crear una Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo, tal y como concluyeron en las últimas jornadas de Archivos Universitarios celebradas el pasado mes de junio en la Universidad Complutense de Madrid.

Por otra parte, la inexistencia de una Comisión de Archivo propia supone que sería la Comisión de Valoración y Selección de documentación (COVASED) regulada por el Real Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, por el que sea aprueban el Reglamento de los Servicios de Archivo y las normas reguladoras del Patrimonio Documental del País Vasco, la que tendría que emitir informe previo con carácter preceptivo sobre las decisiones de la UPV/EHU relativas a la Clasificación y Calendario de Conservación de la documentación generada en la misma. Así lo dispone el artículo 14, según el cual:

«2.– Los calendarios de conservación serán informados por el órgano colegiado de valoración y selección

emango ditu egutegiei buruzko irizpenak. Horrek Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeari igorriko dizkio irizpenak, hiru hilabete naturaleko epean bere txostena egin eta jakinaraz dezan. Epe horretan, eskaera egin zuen artxibo sistemak erantzunik jaso ez badu, irizpena aldekoa dela ulertuko da.

3.– Artxibo zerbitzuan edo, hala badagokio, artxibo sisteman dokumentazioa baloratzeko eta aukeratzeko batzorderik ez duten administrazioetan, dokumentazioa kontserbatzeko egutegiak eta dokumentazioa balioesteko eta aukeratzeko proposamenak onartu aurretik, Dokumentazioa Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak aldeko irizpena eman beharko du nahitaez. Horrek, hiru hilabeteko epean, bere irizpena eman eta jakinaraziko du. Eskabidea egin duen artxibo sistemak epe horretan jakinarazpenik jasotzen ez badu, irizpena aldekoa dela ulertuko da».

EHUko Estatutuetako 258.1.e artikuluarekin bat, idazkari nagusiari dagokio Artxibategi Nagusia zaintzea.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, 2005eko uztailaren 21ean EHUko Gobernu Kontseiluak erabaki zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea sortzea, I. eranskinean jasotzen den moduan.

Azkenik, EHUko Estatutuetako 258.1.d artikuluak dio idazkari nagusiak bermatu behar duela EHUko erabakiak argitaratzea, eta gauza bera agintzen du Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ere (ekainaren 29ko 19/1998 Legeak).

Horregatik guztiagatik, honakoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Agindua ematea EHUko Gobernu Kontseiluaren 2005eko uztailaren 21eko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko. Erabaki horren bidez Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea sortzen da, I. eranskinean ageri den moduan.

***Bigarrena.***– Erabaki hau indarrean sartuko da argitaratzen den egunean.

***Hirugarrena.***– Ebazpen hau irmoa da, eta haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa baino ezin daiteke aurkeztu, eta hilabeteko epea dago horretarako, ebazpen hau eman duen organo berberaren aurrean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean.

Leioa, 2005eko abuztuaren 12a.

Idazkari nagusia,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

documental propio de cada Sistema de Archivos, que comunicará su informe a la Comisión de Valoración y Selección de documentación (COVASED), quien, a su vez, dispondrá de un plazo de tres meses naturales para emitir y comunicar su informe, al cabo de los cuales, si no hubiere notificado al Sistema de Archivos requirente, se entenderá emitido en sentido favorable.

3.– En aquellas Administraciones cuyo Servicio de Archivo o, en su caso, Sistema de Archivos, no cuente con una comisión de valoración y selección propia, los calendarios de conservación de la documentación y las propuestas de valoración y selección, serán sometidos al previo y preceptivo informe de la Comisión de Valoración y Selección de documentación (COVASED), que habrá de emitirlo y comunicarlo en el plazo de tres meses, al cabo de los cuales, si no hubiere notificado al Sistema de Archivos requirente, se entenderá emitido en sentido favorable.»

Según el artículo 258.1.e de los Estatutos de la UPV/EHU es competencia del Secretario General custodiar el Archivo General.

A la vista de las anteriores consideraciones, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 21 de julio de 2005, aprobó la creación la Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en los términos recogidos en el anexo I.

Por último, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, y así también se establece en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero.***– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del acuerdo del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, de 21 de julio de 2005, por el que se procede a la creación de la Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, según lo dispuesto en el anexo I.

***Segundo.***– Este Acuerdo entrará en vigor el mismo día de su publicación.

***Tercero.***– Esta Resolución por ser firme, pone fin a la vía administrativa y contra la misma sólo se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 12 de agosto de 2005.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

I. ERANSKINA

*Lehenengoa.–* Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea jakintza esparru arteko eta kide anitzeko organoa da. Aholku emailea da, eta bere eginkizun nagusia Unibertsitateko organo eta zerbitzu guztiek sortutako dokumentu sorta eta mota guztiak aztertzea da, dokumentuak kontserbatzeko epeak zehaztu, suntsitu edo iraunkorki kontserbatu behar ote diren erabaki eta erabiltzaileek eskura ote ditzaketen ebaztearren.

*Bigarrena.–* Honako hauek osatuko dute Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordea edo Artxibatze Batzordea:

– Buru duen idazkari nagusiak.

– Artxibategi Nagusiko teknikariak, Batzordeko idazkari lanak egingo dituenak.

– Idazkaritza Nagusiko buruak, Batzordea juridikoki aholkatuko duenak.

– Errektoreak izendatutako Zuzenbideko eta Historia Garaikideko irakasle banak.

– Gerenteak izendatutako unibertsitateko zerbitzuetako bi arduradunek.

*Hirugarrena.–* Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordeak edo Artxibatze Batzordeak funtzionamendu araudia osatu behar du, Gobernu Kontseiluak onartu behar duena. Ordu arte Gobernu Kontseiluak 2005eko apirilaren 27ko bileran onartutako Ikastegien Oinarrizko Arautegiko II. tituluko II. kapituluko hirugarren atalean xedatutakoa aplikatu behar zaio.

Bileretarako ohiko deialdiak urtean bi alditan egingo dira gutxienez, eta ezohiko deialdiak, berriz, beharrezko jotzen denean. Unean-unean aztertzen diren dokumentuak sortu dituzten administrazio unitateetako arduradunek bileretara joan ahal izango dute, baita informazio edo iritzi interesgarriak eman ditzaketen guztiek ere.

*Laugarrena.–* Honako eginkizun hauek dagozkio Euskal Herriko Unibertsitateko Dokumentuak Balioetsi eta Garbitzeko Batzordeari edo Artxibatze Batzordeari:

1.– Unibertsitateko administrazio unitateek sortutako dokumentu sorta eta mota guztiak identifikatu eta aztertzea.

2.– Irizpena ematea, dokumentuak sailkatzeko taulari eta haiek kontserbatzeko egutegiari buruzko irizpide administratiboak, juridikoak eta historikoak kontuan harturik; irizpide horiek dokumentuak kontserbatzeko epeak, artxibategian iraun behar ote duten eta erabiltzaileek eskura ote ditzaketen finkatzeko dira.

Horretarako, honako ardura hauek izango ditu Artxibatze Batzordeak:

- Unibertsitateak sortutako dokumentu sortak identifikatzea.

ANEXO I

*Primero.–* La Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, es un órgano colegiado interdisciplinar, con carácter asesor, cuya función fundamental es el análisis de las series y tipos documentales producidos por todos los órganos y servicios de la Universidad para determinar los plazos de conservación de los documentos en las diferentes etapas de sus ciclo de vida, su posible destrucción o conservación permanente y su accesibilidad por parte de los usuarios.

*Segundo.–* La Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea estará compuesta por:

– El Secretario o Secretaria General que la preside.

– La Técnico o el Técnico de Archivo General, que actuará como secretario de la Comisión.

– La Jefe o el Jefe de Secretaría General, encargada de asesorar jurídicamente a esta Comisión.

– Un profesor o profesora de Derecho y una profesora o profesor de Historia Contemporánea designados por el Rector o Rectora.

– Dos responsables de los Servicios Universitarios, designados por el o la Gerente.

*Tercero.–* La Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la UPV/EHU elaborará un reglamento de funcionamiento que someterá a aprobación del Consejo de Gobierno. Hasta entonces le será de aplicación lo dispuesto en la Sección Tercera del Capítulo II el Título II del Reglamento Marco de los Centros, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 27 de abril de 2005.

A las sesiones, que se celebrarán en convocatoria ordinaria al menos dos veces al año y extraordinaria cuando se considere necesario, podrán acudir responsables de la unidad administrativa cuya documentación sea objeto de estudio en ese momento, así como todas aquellas personas que pueda aportar información u opiniones de interés sobre la materia.

*Cuarto.–* la Comisión de Valoración y Expurgo o Comisión de Archivo de la UPV/EHU le corresponden las siguientes funciones:

1.– Identificar y analizar todas las series y tipos de documentos generados por las diferentes unidades administrativas de la Universidad.

2.– Emitir Dictamen teniendo en cuenta criterios administrativos, jurídicos e históricos sobre el Cuadro de Clasificación y los Calendarios de Conservación de los documentos a lo largo de su ciclo de vida, en los que se fijan los plazos de conservación de los documentos la permanencia en cada una de las fases del archivo y determinar su accesibilidad.

Para ello, la Comisión de Archivo se encargará de:

- La identificación de las series documentales generadas por la Universidad.

- Balio historikoa edo ikerketarako balioa duten dokumentuak identifikatzea, iraunkorki kontserbatu behar direnak.
- Identifikazio, sailkapen eta antolamendu egokiaren bitartez, informazioa berreskuratzea errazagoa izatea.
- Dokumentu kopurua txikitzea, froga edo lekukotasun baliorik ez dutenak suntsituz.
- Beharrezko informazioa ez izatearen edo kontserbatu egin beharko liratekeen dokumentuak bereizi gabe suntsitzearen ondorioz, administrazio erabaki okerrak har daitezen ekiditea.
- Biltegiratze tresnak zentzuz erabil daitezen bermatzea, baita dokumentuak hondatu eta desagertzeko arriskua txikitzea ere, Artxibategi Nagusiko biltegietara aldatuz; horretarako, biltegiak behar bezala egokitu behar dira.
- Dokumentu sorta bakoitza eskuratzeko arauak finkatzea, datuen babesari eta pribatutasunari buruzko legedia kontuan harturik.

3.– Dokumentuak garbitu eta suntsitzeko prozesuak normalizatzea eta, informazio edo lekukotasun balioa dutelako, iraunkorki kontserbatu beharreko dokumentu motak eta, administrazio balioa agortu ostean, suntsi daitezkeen dokumentu motak bereiztea.

4.– Euskal Herriko Unibertsitateko organoak eta egiturak artxibatzearen inguruan aholkatzea.

5.– Gobernu Kontseiluak agintzen dizkion bestelako eginkizunak.

- La identificación de los documentos con valor histórico o de investigación para los que se requiere una conservación permanente.
- Facilitar, mediante la adecuada identificación, clasificación y ordenación la recuperación de la información.
- La disminución del volumen de documentos por eliminación de los que ya no tienen valor probatorio o testimonial.
- Evitar decisiones administrativas erróneas resultantes de una falta de las informaciones pertinentes y la eliminación indiscriminada de documentos que deberían ser conservados.
- Garantizar un uso racional de los equipos de almacenamiento, así como reducir el riesgo de deterioro y desaparición de documentos mediante su transferencia a los depósitos debidamente acondicionados del Archivo General.
- Establecer normas de accesibilidad para cada serie documental atendiendo a la legislación relativa a la privacidad y la protección de datos.

3.– Normalizar el proceso de expurgo y eliminación de la documentación diferenciando los tipos que es preciso conservar permanentemente en atención a su valor informativo o testimonial, de aquellos que se pueden destruir agotado su valor administrativo.

4.– Asesorar a los órganos y estructuras de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en materia archivística.

5.– Aquellas otras que le encomiende el Consejo de Gobierno.

# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 4621

**227/2005 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuko 7111 «Nekazaritza eta Landa Garapena» Programan diru-sarrerak lortu direlaeta, programa horretan 704.324,00 euroko kredituak gaitzen dituena.**

Irailaren 7ko 170/2004 Dekretuaren bidez 2004-2005 aldirako behi-esnearen erreferentzia-kopuruak berresleitzeko prozedura eta irizpideak ezarri ziren.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 4621

**DECRETO 227/2005, de 30 de agosto, por el que se habilitan créditos en el Programa 7111 Agricultura y Desarrollo Rural, por ingresos obtenidos en el mismo Programa, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2005, por importe de 704.324,00 euros.**

Mediante el Decreto 170/2004, de 7 de septiembre, se estableció el procedimiento y criterios para la reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca para el periodo 2004-2005.